

BIZKAIKO LANKIDETZAREN II. PLAN ZUZENTZAILEA, 2013 -2015.

AURREKARIAK.

1989an **Finantzen Euskal Kontseiluak** erabaki zuen **Elkartasun Fondoa sortzea** 1990. urterako, laguntza jasotzen zuten herrialdeetan garapen proiektuak finantzatzeko asmoarekin. Fondo honek gero izena aldatu zuen: **Lankidetzarako eta Garapenean Laguntzeko Fondoa** izendatu zen. Fondo honetan, batetik, Eusko Jaurlaritzak eta, bestetik, hiru foru aldundiek ematen zuten dirua, erdibana. Foru aldundiek EAEko gastu guztietarako ezarri ziren koefizienteen arabera egin behar zuten beren ekarpena.

Hau foru lankidetzaren hasiera izan zen. Aitzitik, aldundiek ez dute eskema berbera jarraitu lankidetzaren laguntzean. Adibidez, Arabako Foru Aldundiak fondo honi egiten zion ekarpenarekin batera, bere deialdiak egin zituen garapenean laguntzeko. Beste bi aldundiek, berriz, lankidetzarako aurrekontuen diru guztia fondo horretara bideratu zuten, harik eta fondoa utzi zuten arte. Hori zenbait urtetan gertatu zen, baina **2004. urtea** izan zen (Gipuzkoako Foru Aldundia fondotik irten zen urtea) **hiru aldundiek lankidetzako aurrekontuen kudeaketa oso-osorik bere gain hartu zuten urtea, bakoitzak bere deialdiak eginez.**

Gai honetan, historikoki, Bizkaian justizia sozialaren alde eta nazioarteko elkartasunaren alde borrokan aritu diren pertsonak eta kolektiboak egon dira. Pertsona eta kolektibo horiek beren denbora eta borondate ona sentsibilitatea sortzeko eta dirua biltzeko erabili dute, komunitate txiroetan (batzuk hurbilago, beste batzuk urrunago dauzkagunak) bizi-baldintzak hobetzeko.

Garapenerako laguntza ofizialaren deszentralizazioak, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) profesionalizazioak, eta herrialde aberatsen BPGaren %0,7a herri pobretuei emateko gizarte zibilak egin dituen kanpaina masiboek ekarri zuten Euskal Autonomia Erkidegoan, 90eko hamarkadaren amaieran, lankidetzaren eragileak ugaritzea eta garapenerako laguntzeko aurrekontu publikoa handitzea.

Bizkaiko Foru Aldundian (BFA) jauzi kuantitatiboa 1999. urtean gertatu zen. Orduan, erabaki zen **kudeaketa aurrekontuaren %0,7** (III eta IX. kapituluak izan ezik) lankidetzaren eta sentsibilizazio proiektuetarako edota garapeneraren heziketako proiektuetarako bideratzea.

Zehazki horrek esan nahi du urtero deialdi bat egin dela. 2000. urtetik aurrera, gainera, **dekretu** bat egiten da, lankidetzaren aurrekontu osoa ondoko helburu hauek bideratzeko: (1) Bizkaiko GGKEek egiten dituzten proiektuei diru-laguntzak emateko, (2) lurralde

historikoaren barruan egoera ekonomiko edo politiko zailengatik laguntza eskatzen duten herrialde edo nazioak ordezkatzeko dituzten erakundeak mantentzeko, eta (3) BFAREN Lankidetzaren Programa hobeto garatzeko zerbitzuak eman ahal dituzten Bizkaiko erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Horri urte askotako laguntzen dekretu bat gaineratu behar zaio. Dekretu horri esker, GGKEek esku hartze integralagoak eta denboran irauten dutenak egiten dituzte, eta herri pobretuetako tokiko eragileekin zuzeneko lankidetzaren proiektu batzuk finantzatzeko dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 10 urtez garapenerako lankidetzaren hainbat jarduketara eta programa egin ondoren, erakutsi du munduko herririk pobretuenekin elkartzaren konpromisoa daukala. Alor honetan egindako ahaleginak Hegoaldeko herrietako jende askok bizi duen muturreko pobrezia arintzen lagundu du. Lan honetan, Bizkaiko administrazioak gure gizarteko sektorerik aktiboenen eta kontzientziatuenen laguntza jaso du, dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeen bidez. Haien guztiak gure lurralde historikoaren elkarte sare aberatsa osatzen dute, eta guk gure elkartzaren kulturaren erakusgarri dela uste dugu.

I. PLAN ZUZENTZAILEA (2009-2011).

Hamarkada luze bat eman dugu garapenerako lankidetzaren lan egiten. Lan horrek 2009. urtean **mugarri garrantzitsu bat izan zuen, Lankidetzarako lehenengo Plan Zuzentzailea, 2009-2011, onartu zenean**. Alor honetan daukagun politika definitzeari esker, babestutako ekintzen **inplikazioa hobetu zen** eta ekintzei (**tokiko garapeneraren esparruan berdintasunaren aldeko borrokararen alde egiten zirenak**) **koherentzia handiagoa eman genien**.

Hiru aldundiek lankidetzaren alorrean dauzkaten antzekotasunak eta hiru erakundeetan zuzendaritzen egitura berriek ematen zituzten aukerak kontuan izanik, elementu komunak zituen lankidetzaren politika abiaraztea erabaki zen. Politika horrek, elementu komunak eduki arren, lurralde bakoitzaren autonomia bermatzen zuen erabakiak aplikatzeko orduan.

Urte bete baino luzeago jo zuen prozesu batean, plan zuzentzaile komuna osatu zen, foru lankidetzaren politika deszentralizatua planeatzeko. Emaizak izan ziren **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek "I. Lankidetzaren Plana" adostu zutela, erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren akordio baten barruan**. Akordio horren helburua administrazioen irizpideak eta jardunbideak harmonizatzea zen, fondo publikoen **kudeaketa eraginkorragoa** izan zedin eta lankidetzaren **ekintzen inplikazioa** handiagoa izan zedin.

Plan hori **erakundeen arteko lankidetzaren** fruitua izan zen, baina baita **gizarte zibilaren parte hartzearena** ere, bere elkarte, erakunde eta koordinakunde bidez. Hain zuzen ere, akordio horren erakusgarria da, eta lurralde historikoaren ikuspegitik garapenerako lankidetzaren

hobetzen duten loturak sendotzeko denok daukagun interesa erakusten du.

Hiru lurralde historikoetan 2011. urtean (plana indarrean egon zen azken urtea) deialdiak ebatzi ondoren, aplikatu zen hiru urteetan **izandako emaitzen azterketa** egin zen. Azterlan horren lehenbiziko zirriborroa hiru aldundiei bidali zitzaien, baina Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik egin zituen ekarpenak. Ekarpenak testuan sartzean, dokumentua CONGD koordinakundeari bidali zitzaion. Koordinakunde horretako ordezkariekin egindako batzarrean zenbait ohar egin ziren. Ohar horiek ere behin betiko bertsioan oso-osorik sartu ziren. Azkenik, **2011ko azaroan, hiru foru aldundiek, Hegoarekin batera, batzarra egin zuten Gasteizen, lortutako emaitzak baloratzeko eta aurrera begira zegoen egoera aztertzeko.**

Azterlanaren aurkezpenean bi kontu nabarmendu ziren:

- Lankidetzaren politikaren aplikazioak, plan zuzentzailearen jarraibideak betez, **hiru urte horietan onartutako proiektuei nortasun berezia** eman zien. Nortasun ikur hori honela laburbildu ahal dugu: **emakumeen eskubideak modu aktiboan defendatzen dituzten ekintzei babesa ematea, erakunde publikoen parte hartzearekin**. Hori aurrerapen nabarmena izan zen aurreko urteen aldean, orduan finantzatutako ekintzek ez baitzeukaten plan zuzentzailea indarrean sartu eta gero zegoen kohesio maila bera.
- Hala eta guztiz ere, **hobetu beharreko gai bat baloratu zen: planeko Tokiko Giza Garapenaren ikuspegia modu apur bat zurrunean interpretatu zen**. Horregatik, erabaki zen etorkizunean ikuspegi horren inguruko klabeak zabaldu behar zirela.

Gogoeta horiek egin ondoren, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiek¹ esan zuten ez zeukatela asmorik azken hiru urteetako akordioa berriztatzeko. Arabako Foru Aldundiaren kasuan azaldu zen beste plan batzuk zeudela (baina ez zen zehaztu zeintzuk ziren). Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, adierazi zuen ez zegoela ados lehenengo plan zuzentzailearen planteamenduarekin².

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak, lehenengo plan zuzentzailearekin izandako emaitza positiboak ikusita, eta beste bi aldundien jarrera ikusita, pentsatu zuen aukerarik onena

¹ Gogoratu behar dugu Batzar Nagusietarako 2011ko maiatzeko hauteskundeon ondoren bi aldundietako gobernuko alderdiak aldatu zirela.

² Zehazki, esan zuten ez zeudela ados genero ikuspegiarekin egin zen tratamendu sektorialarekin (zeharkako tratamendua nahiago zuten). Gai hori, azaldu zenez, lehenengo plan zuzentzailean berenberegijaso zen planteamenduaren erabat kontrakoa zen.

2009. urtean hasitako lankidetzaren politikaren garapenarekin jarraitzea zela, bakarrik egin arren.

2012ko lehenengo hiruhilekoan laguntzen deialdia argitaratzeko borondatea zegoen eta artean lankidetzako plan zuzentzaile berria ez zegoen eginda. Horregatik, urte hartan aurreko planeko planteamenduei jarraipena ematea erabaki zen, baita 2009 – 2011 denboraldian proiektuak barematzeko erabili ziren irizpideak erabiltzea ere. Horregatik, **2012. urtea zubi-urtea** izan zen. Urte horretan aurreko hiru urteetako lankidetzaren politika berbera aplikatu zen, eta emaitzak oso onak izan ziren.

Azken urteotan **hobeto ulertu dugu** gure erakundeak garapenerako lankidetzaren nazioarteko esparruan izan dezakeen papera. Gai honetan egiten dugun **lanaren berezitasuna Bizkaian dauden ahalmenak baloratzean datza**. Zentzu horretan, modu positiboan baloratzen dugu lankidetzaren programan gizarte erakunde mota askok duten inplikazioa, ez bakarrik sektore honetan espezializatuena, baizik eta beste herrialde batzuetan esku hartzeko beren elkartasun printzipioak proiektatzeko bidea gure deialdietan aurkitu dutenena.

Nolanahi ere, **argi geratu da politika honen itzalpean abian jarri ziren garapen prozesuek efektu egonkor eta iraunkorrak bakarrik sortuko dituztela epe ertain edo luzean**. Horregatik, prozesu horiek babesten jarraitu beharra dago, iraganean izandako ikuspegiaren antzekoekin.

Lehenengo Lankidetzako Plan Zuzentzailea, 2009-2011, baloratu ondoren, eta garapeneko gobernuaren kanpoko erakundeekin ondorioak kontrastatu ondoren, 2013-2015 urteetan indarrean egongo liratekeen lankidetzaren politikako ildoak definitu ditugu. Horiek aurreko urteetan egindako lanarekin jarraitzeko bokazio argia daukate.

II. PLAN ZUZENTZAILEA (2013-2015).

Bizkaiko Lankidetzaren 2013-2015 bitarteko Plan Zuzentzaile honen aurretik Foru Lankidetzaren 2009-2011 bitarteko Plan Zuzentzailea egon da. Azken horrek hasiera eman zion hiru ardatz hauen inguruan antolatutako lankidetzaren arloko politikari:

1. **Tokiko giza garapena**, pertsonen premiak eta interesak lankidetzaren motibazio nagusitzat jotzen dituenak. Azpimarratu beharra dago tokiko garapenari, gure lankidetzaren deszentralizatuaren espezializazio-arloa den aldetik, giza garapenaren ikuspegia gehitzen zaiola; horrenbestez beren beregi adierazten dugu ez dugula edozelako garapena nahi, baizik eta pertsonen ongizatea jardueraren guztien azken helburutzat daukana.

2. **Genero ikuspegia**, lortu nahi dugun giza garapenerako beharrezko premisa den aldetik. Ikuspegi horrek aintzat hartzen du emakumeen eta gizonen arteko harremanak aldatu behar direla, eta aldaketa horien ardura ez die emakumeei bakarrik egozten.
3. **Garapenerako hezkuntza**, iparraldeko eta hegoaldeko gizarteetan txirotasuna eta desberdintasuna dakartzaten bidegabekeriaren aurrean kontzientzia kritikoa sustatzeko tresna gisa ulertuta. Garapenerako hezkuntza, ikuspuntu horretatik, lankidetzaren arloan sustatzen diren ekintza guztietan egon behar lukeen ikuspegi bihurtzen da, berdin dio ekintzok non burutzen diren eta zein sektoretakoak diren. Gizadia astintzen duten arazoei eta horiek gainditzeko proposamenei buruzko ikusmolde teknokratikoa gainditzen saiatu beharra dago.

Foru Lankidetzaren 2009-2011 bitarteko Plan Zuzentzaile hori amaitutakoan, uste dugu lortu dugula nortasun-ezaugarria ematea lankidetzaren arloko gure lanari, hauxe izan baita gure ahaleginen xede nagusia: emakumeen eskubideak defendatzea komunitateetako ordezkari-egituren inplikazioarekin. Sustatu nahi ditugun egiturazko aldaketei, ordea, epe luzeko ikuspegitik begiratu behar zaie. Horregatik, 2009-2011 hirurtekoan izandako esperientziaren balorazio positiboaren ondoren, **beharrezkotzat jotzen dugu lanean jarraitzea bide beretik**, gaur egungo **garapen agenda** osatzen duten arlo nagusiak jorratuz:

1. Munduan mila milioitik gora pertsonak eta batez ere emakumeek jasaten dituzten muturreko pobrezia eta desnutrizioa gainditzea.
2. Desberdintasunak ezabatzea, agertzen diren eremua edozein izanda ere: gizonen eta emakumeen arteko harremanak, errentaren banaketa, kultura aniztasunaren defentsa, eta baita sexu identitateen errespetua ere.
3. Ingurumena zaintzea, horren beharra baitago bai ikuspuntu praktikotik, bizi garen ekosistemetan ingurumenaren hondamenak sortzen dituen ondorioengatik, eta bai kulturaren ikuspuntutik ere, ekosistema horien osagai guztiei zor zaien begiruneagatik.
4. Nazioarteko arau berriak ezartzea, beharrezkoak baitira biztanlerik zaugarrienen eskariak aintzat hartuko dituen globalizazio soziala sustatzeko.
5. Gaur egungo bidegabekeria eta pobrezia egoerari buruzko kontzientzia kritikoa eraikitzea, fenomeno horiek eragiten dituzten kausei aurre egiteko balioko duena.
6. Bakearen kultura eraikitzea, bakea ezinbestekoa baita pobrezia egoerei lotuta egon ohi diren bortxakeriaren eta giza eskubideen urratzeen esparruan.

Erronka horiei aurre egiteko, uste dugu Bizkaiko lankidetzak ondo aprobetxatu behar dituela gure lurralde historikoan beste batzuen aldean ditugun abantaila eta ahalmen guztiak. Horrela bete ahal izango ditugu Plan Zuzentzaile honetan ezarritako helburuak. Horregatik, gure iritziz, lankidetzan **askotariko eragileek** dute lekua. Hainbat arlotako

esperientzia erabiliz, eragile horiek pobrezia eta desberdintasunak gainditzeko helburuaren zerbitzura jar ditzakete euren gaitasunak, bakoitzak bereak. Hori dela eta, uste dugu **Bizkaiko lankidetzaren eragile izan daitezkeela garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak eta haien itunkideak**, biak ere estrategikoak baitira gure lanaren garapenerako, duten esperientziagatik; eta baita, **haien ondoan, garapenerako lankidetzan espezializaturik ez dauden gizarte zibileko beste jardule batzuk ere; iparraldeko eta hegoaldeko administrazio publikoak; Euskal Fundoa eta zuzeneko lankidetzaren arloko ekimenak garatzen dituzten beste udaljerri-elkarte edo sare batzuk**, eta hegoaldeko erakunde kidekoak; nazioarteko erakunde publikoak, eta hegoaldeko estatuak nahiz estaturik gabeko herriek Bizkaian dituzten ordezkariak.

Aurreko lerroaldean aipatutako erakundeetan laburbiltzen den lan-ahalmen hori **bideratzeko, honako tresna hauek ditugu**³:

1. **Laguntza humanitarioaren eta larrialdietarako laguntzaren** deialdi iraunkorra, munduan gertatzen diren ezbehar natural eta gatazka armatu ugariak eragindako hondamendiei erantzuteko (gutxienez %3).
2. Hegoaldeko herrietako toki **garapenerako proiektuen** deialdia (gutxienez %60).
3. **Sentsibilizazioaren**, prestakuntzaren, eragin politikoaren, ikerketaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan Bizkaian gauzatzen diren **proiektuetarako** deialdia (gutxienez %10).
4. **Unean uneko ekimenen deialdia, garapenerako lankidetzaren agente ezohikoentzat**. Deialdi horren bidez, lankidetzan jarduteko aukera eman nahi zaie gorago aipatu diren askotariko eragileei (gehienez %5).
5. **Genero ikuspegiari eta zuzentasunaren aldeko antolamendu-aldaketari buruzko laguntza teknikoak** kontratatze deialdia. Genero zuzentasunari garrantzi handia ematen dio 2013-2015 bitarteko Plan Zuzentzaileak, eta horrexegatik egiten da deialdi hori, deialdietan parte hartzen duten erakundeen erantzun positiboa errazteko. (Gehienez %6).
6. Plan Zuzentzaile honetan aipatzen diren balizko lankidetzaren agenteetarako edozeinekin **zuzenean lankidetzan jardutea eta hitzarmenak egitea** (gehienez %10).

Jarraipen plan bana egin da tresna horietarako bakoitzerako, neur daitezkeen adierazleekin, eta 2013-2015 bitarteko Plan Zuzentzailearen indarraldia amaitzen denean ebaluazio orokorra egingo zaio hiru urte horietan erabilitako lankidetzaren arloko politikari.

³ Parentesi artean, lankidetzarako aurrekontu osoaren portzentajeak.

LANKIDETZAKO BESTE ERAGILE BATZUEKIN KOORDINATZEA.

Gauzak horrela, foru aldundiek lehen deskribatutako ibilbidea egiten zuten bitartean, Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren eragileen ordezkariak eta partaidetza organoak indartu zituen. Bizkaiko Foru Aldundiak lan horretan parte hartze aktiboa izan du, **Erakunde arteko Batzordearen funtzionamenduan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren** funtzionamenduan dagokion erantzukizuna betez. Testuinguru horretan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak **2012ko uztailaren 4an** izan zuen batzarrean, besteak beste, kalitatezko eta deszentralizatutako lankidetzaren baten aldeko **adierazpen instituzionala** plazaratu zen.

Horregatik guztiagatik, gizarte zibilaren elkarteek eta Kontseiluan ordezkaturik dauden administrazioek lankidetzaren deszentralizatutako benetako euskal politika publiko bat sendotzeko konpromisoa baloratu eta geureganatu nahi izan genuen. Izan ere, politika hori azken 25 urteetako lan eskergaren emaitza da, 2007ko euskal lankidetzaren legearen ondorio, eta adostasun sozial eta politikoaren fruitu. Gure lankidetzaren eredu honelakoa da:

1. Errealitatea hobeto ezagutzea, zenbait herrialdeetako historia gure gizarteko pertsonekin konpartituz, lankidetzaren eta elkartasuna estu-estu elkarri lotuz.
2. GGKEen bidez eta dirua irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuen bidez (herritarren lankidetzaren eragileak adibidez) gizarte zibilari protagonismoa emateko interesa.
3. Hegoaldean gizarte ekimenak sendotzea, proposamenak sortzeko parte hartze prozesuak oso kontuan hartuz eta, horrela, gizarte zibila sendotzea.
4. Garapenerako heziketaren aldeko apustua egitea, barne eta kanpo ezberdintasunak murriztu ahal izateko lurrean behar den gizarte eraldaketari heltzeko modu bat denez gero.
5. Hegoaldean tokiko administrazioetan trebeziak sorraraztea.
6. Lankidetzaren horrek ezberdintasunen kausa estrukturalen gaineko jarduketak sendotzea, eta ez bakarrik eredu nagusiaren ondorioei aurre egitea. Genero ikuspegia, denontzako banakako eta taldeko eskubide guztiak, eta iraunkortasun ekologikoa txertatzean egin diren aurrerapenak mantentzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso eta printzipio horiek guztiak bere egiten ditu, eta goitik behera barneratzen ditu gure lurralde historikoko lankidetzarako.

